

MAROKO

Betiko higiezin-ustelkeria, harakinaren labana handia eta senarraren bideoa

Ustelkeria berriz protagonista Marokon, betiko eroskerietara ohitutako funtzionario beterranoek bestelako egoera bat nahiko luketen herritar modernoekin topo egitean.

Mohamed VI.a erregearen herrialdean funtzionario bat epaitzen ari dira egunotan, ezkontutako emakume bati xantaia sexuala egiteagatik. Kasuak iritzi publikoa astindu du eta berriez ipini du mahaiaren gainean agintearen agenteen jauntxoeriaren arazoa, nahiz eta teorian ustelkeriaren aurkako neurriak hartu diren Marokon.

Kasu honetan, ezkontutako emakume batek *caid* edo herriko epaileari xantaia sexuala egin izana leporatu dio: berak esandakoa eginez gero, funtzionarioak ez zuen bere senarra kartzelara bidaliko. Bi delitu

 **JENDARTEA /** Fatima Zohra Bouaziz (Efe)

Ustelkeriak milaka aurpegi ditu Marokon, Transparency International gobernuz kanpoko erakundeak egiten dituen inkesten arabera atzera egiten ari den arren. Azken boladan funtzionarioen biktimek teknologia berriek ematen dituzten aukerak baliatu dituzte beraien salaketak plazaratzeko. Bi munduren arteko talka.

egin omen zituen gizonak: teiltu lauan legez kontra gela bat eraikitzea eta lanok egin ahal izateko eroskeria ordaintzea.

ARAZO ESTRUKTURALAK

Funtzionarioen biktimek grabatutako bideo batek erabat aldatu ditu kontuak eta gaia hedabide askotara iritsi da, Justizia Administrazioaren jardura bera ere

aldatzeaz gain. Gizartean ikusmin handia sortu du kasuak, agerian ipini baititu Marokoko gizarteak dituen arazo estruktural batzuk, herritar guztiek betidanik ezagutu dituztenak: legez kontrako eraikuntza, udal ustelkeria eta funtzionario batzuen nagusikeria.

Historia orain hilabete batzuk hasi zen Marokoko erdialdean

Dirua zuzenean funtzionarioari ematea, inon erregistratu gabe, oso ohikoa da Marokon zerbitzu edo gestioaren bat aurrera atera nahi bada.
GAUR8

dagoen Berrechid probintzian, Derua izeneko herri txikian. Bikotea ezkondu berria zen eta *moqadem* edo udal funtzionarioari dirua eman zioten teiltu lauan legez kontra gela bat eraiki ahal izateko. *Moqadem*-ak dirua hartu bai, baina hitzartutakoa bete ez, eta bere nagusiari, *caida*-ri obraren berri eman zion. Funtzionarioak ez zuen espero hori egiteagatik arazoak izango zituenik.

Caida bera ere ustela izan, ustelkeriaren erreinuan. Bikoteari jakinarazi zion egindako lanak legez kontrakoak zirela eta idatzi bat sinatzera behartu zuen senarra: bertan onartzen zuen gizonak dirua ordaindu zuela legez kontrako lanak egiteko baimenaren truke.

BIKTIMEN MENDEKUA

Caida pozik zegoen, historia berak nahi bezala bukatuko zela-koan. Oker zebilen ordea. Doku-



mentua hartu eta emazteari xantaia egin nahian hasi zen, Whatsapp bitartez mezuak bidalita: berarekin oheratu ezean, senarrak sinatutako idatzia erabiliko zuen gizona kartzelara bidaltzeko.

Emakumeak, funtzionario ustelak esandakoarekin kikilduta geratu beharrean, senarrari esplikatu zion zer gertatzen ari zen eta bien artean beren mehatxu propioa diseinatu zuten. *Caida*-ri ziria sartzeko, bere logelara grabatu nahi zuten epailea, behartutako amorantearen zain zegoela.

Herriko epailea biluzten hasita zegoela, bat-batean senarra sartu zen gelara. Berarekin batera beste lagun bat zihoan, harakinek erabiltzen duten labana handi horietako bat hartuta. Telefono batekin gertaera grabatzen ari zirela, *caida* behartu zuten berak egindako xantaia sexuala aitortzera.


Era xelege horretan grabatutako bideoa sarera igo zuten. Sekulako arrakasta izan zuen, jakina. Eskandalua hedabideetan eta bazter guztietan komentatu ahal izan zen. Bestela beste alde-ara begiratzeko joera izaten duen Barne Ministerioak berak *caida* kaleratu egin zutela esan behar izan zuen, eta bere aurkako prozedura judiziala abian jarriko zuela, ikerketa ofizial bat zabal-tzeaz gain.

KASUAREN SUSPENSEA

Azkenean *caida* epaitzen ari dira sexu-abusuengatik (aske jarraitzen du oraingoz); eta emakumea, bideo horren bitartez xantaia egiten saiatzeagatik.

“Sexua legez kontrako eraikuntza baten truke” izenburua jarri zion gaiari buruzko informazioaren inguruko editorialari “Ajbar al Yaum” egunkariak. Taufiq Buachrin zuzendariak nabarmendu zuen «sexua, agintea eta indarkeria» nahasten dituen kasuaren «suspensea».

Aldi berean, Buachrinek idatzi zuen Barne Ministerioak oso kontrol ahula duela bere funtzionarioekiko eta bere buruari galdetu zion ea bikoteak zergatik ez zuen hasiera-hasieratik *caida*-ren jarrera salatu.



Ustelkeriaren aurkako mobilizazioa Casablancan. Fadel SENNA | AFP



Mezu argia du txartelak: «Aski da ustelkeriaz». GAUR8

Herriko epailea biluzten hasita zegoela, senarra sartu zen. Berarekin laguna zihoan, harakinek erabiltzen duten labana handi bat hartuta. Telefono batekin gertaera grabatu zuten

«Sexua legez kontrako eraikuntza baten truke» izenburua jarri zion editorialari egunkari batek: sexua, agintea eta indarkeria nahasten dituen kasuaren suspensea nabarmendu zuen

«Marokoar gehienek bezalaxe, beraiek ere ez dute uste Marokon Zuzenbide Estatua dagoenik; ezin zuten imajinatu ere egin Justizia Administrazioak *caida*-ren maila berean jarriko zituenik. Beraientzat, kamara-aren indarra eta gizartean eragindako eskandalua ziren beren burua babesteko arma bakarra, beraiek eta beren ohorea babesteko arma bakarra».

JAUNTOKERIA

Kasuak makina bat komentario eragin ditu Marokon bertan. Batzuek nabarmentzen dute jauntxokeria. Beste batzuek, marokarrak ustelkeriarekin hain

ohituta egoteak ezkutuko urbanizazioa bezalako fenomenoak ahalbidetzen dituela. Hala ere, badira *caida*-ren posizioa defendatzen dutenak ere: esaten dute bikoteak bere «sineskortasuna» baliatu zuela beren historia antolatzeko.

Iritziak iritzi eta epaileen erabakiaren zain, gauza bat oso garbi geratu da: teknologia berriak eta sare sozialak Marokon salaketak egiteko eta justizia eskatzeko gero eta gehiago erabiltzen dira. Betiko Maroko aldatzen ari dira tresna berri horiek, baina beheko mailan dute eragina batez ere, erregea oraindik ukiezina delako.

HAURDUNARI BIRJINTASUN ZIURTAGIRIA EMAN ZION MEDIKUA ETA EZKONDU AURRETIK HIMEN BERRIA NAHI ZUEN POLIZIA

Azken asteotan gaur egungo Marokoren izaera ustela agerian uzten duten zenbait kasuren berri eman dute hedabideek. Kasu batzuetan injustiziaren biktimek beren buruari su eman diote, herritar askorentzat egoera jasanezina dela gogora ekartzeko.

Bere buruaz beste egiteko modu hori ohikoa bihurtzen ari da Afrikako iparraldeko herrialdeetan eta 2010eko abenduan ezohiko erreakzioa eragin zuen: Tunisian gazte batek bere buruari su eman ondoren, protestak herrialde arabiarretako bazter guztietara iritsi ziren, Arabiar Udaberria deitu zaion fenomeno politikoari hasiera emanez.

Orduan ere herritarrek sistema jasangaitz bat salatu zuten: ustelkeria bazter guztietara eramaten duena eta gazteei aurrera ateratzeko aukerarik ematen ez diena. Mohamed Bouazizi saltzaile ibiltariak suizidio publikoa beste

irtenbiderik ez zuen ikusi 2010ean. Tankerako egoera bat bizi zuen Marokoko 42 urteko emakume batek apirilaren 9an bere merkantziak Barne Ministerioko funtzionario batek kendu zizkionean. Alfer-alferrik eskatu zuen salgaiak itzultzeko eta azkenean bere buruari su eman zion. Handik bi egunera hil zen erietxean. Apirilaren 18an dozenaka saltzaile elkartu ziren Kenitra hirian, gaiari buruzko ikerketa bat exijitzeko.

Orain bi hilabete, berriz, beste saltzaile batek Agadir hiriko auzitegian eman zion su bere buruari, berak aurkeztu zuen salaketari jaramonik egiten ez ziotelako.

Kenitra probintzian bertan, mediku batek birjintasun ziurtagiria eman zion haurdun bati. “Al Massae” egunkariak emandako informazioaren arabera, orain zazpi urte emakume batek bere nagusiak bortxatu izana salatu zuen. Akusatuak ezezkoari eutsi zion, eta mediku bat

«erosi» zuen biktima birjina zela adierazi zezan. Umea jaio zen, baina sei urte pasa eta gero oraindik ez dute erregistratu eta ez dauka eskolara joaterik. Bortxatzailea, jakina, diru asko duen familia batekoa da. Medikua epaitzen ari dira. Erasotzailea, ez.

Marokoko ustelenen artean poliziak daudela askotan esan izan da. “Assabah” egunkariak eskainitako informazio baten arabera, emakume polizia batek atxilotuta zegoen emakume gaixo bati (minbizia zuen) bitxiak, arropa, telefonoak eta dirua lapurtu zizkion (5.500 euro inguru) ezkondu aurretik himenoplastia bat egin nahi zuelako: baginaren zuloko muki-mintzezko tolestura txikia da himena; koitoan puskatzen denez, birjintasunaren seinaleztat hartu izan da hainbat kulturatan. Himen «berria» nahi zuen agente lapurrak, senarrak birjin batekin ezkondu zela jakin zezan. Casablancako auzitegi batean epaitzen ari dira.

Apirilaren 18an dozenaka saltzaile ibiltari elkartu ziren Kenitra hirian, beste saltzaile batek bere buruari su eman ondoren. Gertatutakoaren inguruko ikerketa egitea exijitu zuten manifestariek.
Fadel SENNA | AFP

